


Lan Harreman eta Gizarte langintza Fakultatea Arabako Atala

IKASLEEN
HARRERA
GIDA



Ongi etorri UPV-EHUko Arabako ataleko Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatera.

Gida honetan, titulazioari eta ikastegiari buruzko informazio baliagarria aurkituko duzu (instalazioak, zerbitzuak, antolakuntza akademikoa...)¹. Ikastegiko lehen egunetik hasita baliagarri izan dakizukeen informazio guztia bildu dugu.

Zure iradokizunen zain geratzen gara, gida hau hobetze aldera: glue.zuzendaritza@ehu.eus

GIDARENEDUKIAK

Kokagunea eta zerbitzuak	3
Titulazioa	7
Antolakuntza akademikoa	11
Informazio interesgarria	18


¹ Gida hau eskuragarri dago inprimatutako bertsioan eta bertsio digitalean Fakultateko web-rriko atalean: [Etorkizuneko Ikasleak](#)

**LAN HARREMAN eta GIZARTE
LANGINTZA FAKULTATEA
Arabako Atala**

Kokagunea eta zerbitzuak

IKASTEGIAREN KOKAGUNEA ARABAKO CAMPUSEAN

Ikastegia Arabako Campusean dago: Apraiztarren kalea, 2, 01006, Gasteiz. Telefono zenbakia: 945 013 317



**Lan Harreman eta
Gizarte Langintza Fak.
Arabako atala**

**Arabako Campuseko
Errektoreordetza**

**Liburutegia eta
Elurreta Gelategia**

IKASTEGIKO GUNEEN ANTOLAKETA

Solairua	Ikasgelak	Mintegiak	Beste gune batzuk
Lehen solairua	Concepcion Arenal	2. Mintegia	Dekanotza Administrazioa Irakasleen bulegoak Jane Addams gela
Behe solairua	1. Ikasgela 2. Ikasgela 3. Ikasgela 4. Ikasgela		Atezaindegia Ikasleen idazkaritza
Sotoa	5. Ikasgela Informatika Gela Mary Richmond gela	3. Mintegia 4. Mintegia	Ikasleen Kontseilua Rosa Luxemburgo gela Makinak (jan-edariak)

Ikastegiko ordutegia

Fakultatea zabalik dago astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 8:00etatik 20:30era, ikasturte guztian zehar, salbu udaberriko eta neguko oporraldiak eta uztaila eta abuztua. Aldaketak aldeztu aurretik iragartzen dira beti.

IKASTEGIKO INSTALAZIO ETA ZERBITZUAK

Atezaindegia

Atezaindegia beheko solairuan dago, eraikinaren sarreran. Jendeari informazio orokorra emateko zerbitzua da. Horretaz gainera, beste laguntza mota batzuk ere ematen dira, eta instalazioak kontrolatzen dira. Harrera ordutegia: 8:00etatik 20:00etara.

Idazkaritza

Zure espediente akademikoarekin zerikusia duten eskaera eta kontsulta guztiak egiteko, idazkaritzara jo beharko duzu (ziurtagiriak eskatzeko, bekak eskatzeko, jarduera espezifikoen truke kredituak onartzeko...). Bestalde, idazkaritzan erregistra dezakezu UPV/EHUko zerbitzuetara bidaltzeko dokumentazioa.

Idazkaritza beheko solairuan dago, atezaindegiaren ondoan. Une honetan, COVIDen ondorioz, eta berriro ohartarazi arte, harrera ordutegia honako hau da: astelehenetik ostegunera 9: 00etatik 15: 00etara eta ostiraletan 9: 00etatik 13: 00etara. Neguko eta udaberriko oporraldietan eta udan (maiatzaren 31tik irailaren 10era), berriz, 9: 00etatik 13: 00etara.

Rosa Luxemburgo gela

Ikasleak elkartzeko gela bat da, bildu eta hainbat jarduera egiteko aukera ematen duena. Wifi gune bat da, eta baditu mahaiak eta aulkiak. Fakultateko sotoan dago.

Informatika gela

Informatika gela lehen solairuan dago. Eskolak emateko erabiltzen da batik bat, baina edonor sar daiteke eskolarik ez denean. Astero, gelako atean iragartzen da noiz egongo den gela hartuta eskolak emateko. Ordenagailuak erabiltzeko, ikasleek LDAP pasahitza erabiltzen dute, matrikula egitean jasotzen dutena.

Wifi gunea

Ikastegiko wifi gunea eraikinaren hall-ean dago. Arazorik izanez gero ekipoa konfiguratzeko, kontsulta ezazu webgunea <https://www.ehu.eus/es/web/ikt-tic/eaz-cau>, edo jar zaitez harremanetan EAZrekin (945 01 44 00 telefono zenbakia).

Ikasleen Kontseiluaren lokala

Ikastegiko sotoan dago.

BESTE UNIBERTSITATE INSTALAZIO ETA ZERBITZU BATZUK

Liburutegia

Koldo Mitxelena Arabako Campuseko liburutegia ikastegitik minutu gutxira dago, Nieves Cano kaleko 33. zenbakian. Bestalde, liburutegiko funtsei eta mailegu modalitatei buruzko informazioa lortuko duzu esteka honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/arabako-campuseko-biblioteka>

Pabiloia

Fakultatearen pare-parean dagoen eraikina da. Liburu denda eta paper denda, kafetegia eta bi unibertsitate jangela biltzen ditu.

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (IAZ)

Ikasleentzako arreta zerbitzu bat da IAZ, campuseko orientatzaileak koordinatzen duena. Zerbitzuaren helburua da unibertsitatean sartu aurreko eta unibertsitateko ikasleek eskatzen duten informazioa eta orientabidea ematea.

Errektoreordetzako eraikinean dago (Izardui Komandantearen kalea, 2), Pabiloiaren atzealdean. IAZrekin harremanetan jartzeko, erabil itzazu sou-ar@ehu.eus helbide elektronikoa eta 945 01 33 94 telefono zenbakia.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak aholkularitza akademikoa ematen die ezgaitasunen baten ondorioz behar bereziak dituzten ikasleei. Hala, beren eskubide eta betebeharrei, eta Unibertsitateko baliabide espezifikoetarako buruzko informazioa ematen zaie.

Arabako Campuseko Errektoreordetzako eraikinean bada harrera gune bat (telefono zenbakia: 945-0143 43). Gure ikastegian, Koordinatzailea da zerbitzu horrekin koordinatzeko arduraduna.

Beste zerbitzu batzuk

Beste zerbitzu interesgarri batzuk ere aurkituko dituzu campusean, hala nola Kirol Zerbitzua, Enplegu Gunea, Gazteentzako Informazio Zerbitzua, etb. Arabako Campuseko webgunean aurkituko duzu zerbitzu guztiei buruzko informazioa, kokagunea eta harrera ordutegia.

<https://www.ehu.eus/eu/web/araba>

TITULAZIOA

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA

Gizarte langintzak gizarte langile profesionalak trebatzen ditu, eta gaitasuna ematen die gizarte errealitateko zailtasun eta beharren aurrean prebentziozko esku-hartzeak eta sustapen ekintzak lantzeko. Gizarte langintzaren eginkizuna da pertsona, talde eta komunitateen gizarte ongizatea hobetzen laguntzea, gizarte arazoak konponduz eta pertsonen autonomia eta independentzia indartuz arazoei aurre egiteko orduan.

Ikasketen antolamendua

Ikasketa plana 6 gai edo modulutan egituratuta dago:

- *Gizarte Langintza: Oinarriak, Metodologia, Teoriak eta*
- *Teknikak Gizarte Langintzaren Testuinguru*
- *Instituzionala*
- *Gizarte Langintzaren Ardurapeko Prozesuak eta*
- *Arazoak Gizarte Langintzarako Lege eta*
- *Antolakuntza Baliabideak Praktikak eta gradu amaierako lana*
Hautazkoak

Ikasgaiak

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Adarreko oinarrizko gaiak	30	24			54
Beste adar batzuetako oinarrizko gaiak	6				6
Derrigorrezkoak	24	36	36	6	102
Hautazkoak			24	12	36
Kanpo praktikak (gainbegiratuak)				32	32
Gradu amaierako lana				10	10
Guztira (mailaka)	60	60	60	60	240

Ikasgaiak oinarrizkoak, derrigorrezkoak edo hautazkoak izan daitezke:

- **Oinarrizko ikasgaiak:** ezagutza adar bateko ikasgai orokorrak dira; gizarte eta lege zientzietakoak, gure kasuan. Ez dute nahitaez izan behar titulazio bakoitzeko ikasgai espezifikoak. Titulazioa lortzeko, ikasleek nahitaez ikasi eta gainditu beharreko ikasgaiak dira.
- **Derrigorrezko ikasgaiak:** titulazio bakoitzaren eduki espezifikoak biltzen dituzte; alegia, titulazioaren gaitasun espezifikoak betetzen dituzte, eta, horrenbestez, ikasle guztiek egin behar dituzte.
- **Hautazko ikasgaiak:** ikasleek aukeran dituzten ikasgaiak dira. Hirugarren eta laugarren ikasmailetan eskaintzen dira. Ikasketa planean, bi prestakuntza ibilbide edo minor sartu dira: "Gatazketan Esku-hartzea eta Gatazken Eraldaketa", eta "Komunitatearen

Hautazkoak

Ikasleek hautazko 36 ECTS bete behar dituzte 3. eta 4. ikasmailetan. Bi aukera dituzte: minor bereko ikasgai guztiak egitea, edo ikasgai solteak egitea (alegia, edozein minorretakoak edo Euskararen Plan Gidarikoak).

Hautazko ikasgaien plaza kopurua mugatua da. Matrikula, berriz, notaren arabera egiten da. Sailek ikasgaiak eskaintzeko duten gaitasunaren arabera da ikasturte akademiko bakoitzeko hautazkoen eskaintza.

Ikasleek eskatu ahal izango dute **6 ECTS kreditu onartzea** (hautazko 36 kredituetatik) **jarduera espezifiko hauen truke**: kultura jarduerak, unibertsitate jarduerak, kirol jarduerak, ikasle ordezkartzako jarduerak, eta elkartasun eta lankidetzak jarduerak. Kredituak onartzeko eskaerak 3. mailatik aurrera egiten dira.

Kanpoko praktikak (Practicuma)

Practicuma da Gizarte Langintzako prestakuntzaren ardatz nagusietako bat. Hainbat arlotako 200 profesionalak baino gehiagok laguntzen dute prestakuntzan, ikasleei praktikak egiteko aukera emanez. Gizarte babeserako hainbat sistematan egiten dira praktikak (gizarte zerbitzuak, hezkuntza, osasuna...); hainbat biztanle sektore eta gizarte arazo lantzen dira (familia, presoak eta preso ohiak, adinekoak, talde etnikoak...), hainbat erakundetan (erakunde publikoak, elkarteak, enpresak).

Guztira, 32 ECTS kreditu egin behar dira kanpoko praktiketan. Gradu 4. mailan egiten dira, eta gainbegiraturik daude banaka, taldeka eta "Hezkuntza Gainbegiraketa eta Etika Profesionala" irakasgaiaren bidez. Praktiken ezaugarriez, aurrebaldintzez, eta praktikaguneak esleitzeko prozesuaz behar duzun informazio guztia 3. mailan jasoko duzu. Hala ere, aurretik jakizu praktikaguneak 3. Ikasturtean esleitzen direla, aurreko bi ikasturteetako batezbesteko nota kontuan hartuta, eta ikasle bakoitzaren interesen arabera. Informazio gehiago nahi izatekotan, Fakultatearen web orrian Practicumaren Gida eskura dezakezu: Practicum

Gradu Amaierako Lana (GRAL)

Gradu amaierako lana nahitaez egin behar da, eta 10 kreditu ematen ditu titulazioan. GRALaren helburua da titulazioaren gaitasun espezifikoaren ebaluazio orokorra egitea, eta ikasketetan jasotako ezagutzak aplikatzeko lan bat egitean datza. Azken ikasmailan egiten da, irakasle baten tutoretzapean. Lana idatziz aurkezteaz gain, ikastegian eskolak ematen dituzten sailletako irakasleek osatutako epaimahai baten aurrean azaldu behar dute gaia ikasleek. GRALaren matrikula eta defentsa egiteko, titulazioko kreditu guztiak gainditu behar dira.

Aldez aurreko baldintzak eskatzen dituzten ikasgaiak

3. eta 4. mailetako ikasgai batzuetan matrikulatzeko, baldintza batzuk bete behar dira aldez aurretik. Hau da, beharrezkoa da aurreko ikasmailetako ikasgai jakin batzuk edo kreditu kopuru jakin bat gainditzea. Gizarte Langintzako Graduan, honako ikasgai hauetan eskatzen da aldez aurretik baldintza batzuk betetzea:

- ☐ Jardute Profesionalerako Sarrera Practicuma
- ☐ Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala
- ☐ Gradu Amaierako Lana

Informazio gehigarria

Fakultateko webgunean aurkituko duzu gai hauei buruzko informazio gehiago: ikasketa plana, ikasgaien irakaskuntza gida, titulazioaren gaitasunak, eta abar.

ANTOLAKUNTZA AKADEMIKOA
Gizarte Langintzako Gradua

INFORMAZIO AKADEMIKOA

Matrikula

Matrikula egiteko, GAUR tresna erabili duzu¹.

Garrantzitsua da zure matrikula gainbegiratzea eta egiaztatzea datu guztiak zuzenak direla. Esate baterako, ongi begiratu ea euskarazko (31 edo 46 taldeak) edo gaztelaniazko (01 edo 16 taldeak) lerroan matrikulatu zaren, eta ea aukeratu dituzun ikasgaietan matrikulatu zaren.

Kredituak onartzea eta transferitzea

Ikasleek beste titulazio ofizial batzuetako kredituak onartzeko edo transferitzeko eska dezakete². Eskaerak idazkaritzan egin behar dira, ikasturtea ofizialki hasten denetik hilabeteko epean.

Irakaskuntza gida

Titulazioaren irakaskuntza gidan, ikasgai bakoitzari buruz behar duzun informazio guztia aurkituko duzu: gaitasunak, programa, bibliografia, irakaskuntzarako metodologiak, ebaluazio sistema, eta abar. Fakultateko webgunean ikus daiteke.

Eskola egutegia

Ikasturteko egutegia webgunean argitaratzen da. Ikasmaila bakoitza bi lauhilekotan antolatuta dago: lehen lauhilekoa, irailtik abendura bitartean, eta bigarrena, urtarritik maiatzera bitartean. Ikasketa planeko ikasgai gehienak lauhilekoak dira.

Eskola orduak

Lauhilekoaren hasieran argitaratzen dira aurrez aurreko ordutegiak, Ikastegiaren hall-eko iragarki taulan eta webgunean.

Edozein aldaketa era berdinean argitaratzen da

¹ GAUR (Unibertsitateko Akademia Gestio Gaurkotua): hainbat kontsulta egiteko aukera ematen duen aplikazio informatikoa da: matrikula, notak, kreditu amortizatuak. Interneten bitartez sar zaitezke GAURen <https://gestion.ehu.es/gaur> zure NAN zenbakia eta pasahitza sartuta.

² Gaur egungo beka araudiei jarraituz, baliozkotutako kredituak ez dira kontuan hartuko bekak emateko orduan.

Ikasgaien antolamendua

Ikasgai guztiak kreditutan neurtzen dira³, eta atal praktikoa eta teorikoa bana izaten dute. Oinarrizko eta derrigorrezko ikasgaietan, gela bi taldetan banatzen da atal praktikoa. Praktika talde horiek alfabetikoki antolatzen dira, modu berean ikasgai guztietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran ematen da taldeen osakeraren berri.

Tutoretza orduak

Irakasleek aurrez aurreko tutoretza eskaintzen dute; astean bi eta sei ordu artekoak izaten dira, irakasleen egoeraren arabera. Irakasleen tutoretza orduak kontsulta ditzakezu GAUREn eta Fakultateko webgunean.

Koordinazioa

Koordinazioa bermatzeko, Fakultateak koordinazio ekipoa dauka: Titulazio Koordinatzailea, modulu eta koordinatzaileak eta irakasgaietako koordinatzaileak.

Azterketen datak

Azterketen edo ebaluazio proben datak Fakultateko webgunean argitaratzen dira. Ikasgai bakoitzak bi deialdi ditu ikasmaita bakoitzeko. Lehen lauhilekoko deialdiak urtarilean (ohiko deialdia) eta ekainean (ohiz kanpoko deialdia) izaten dira; bigarren lauhilekokoak, berriz, maiatzan (ohikoa) eta ekaina-uztailean (ohiz kanpokoak).

Derrigorrezko bi ikasgaien ebaluazio probak data berean egokituz gero, goreneko ikasmaitako derrigorrezko ikasgaiaren irakasleak beste data bat erabakiko du. Derrigorrezko ikasgai baten eta hautazko baten ebaluazio probak data berean egokituz gero, berriz, hautazkoaren data aldatuko da. Horretarako, ikasleek gutxienez 15 egun naturaleko epea baino lehenago (probaren eguna kontuan hartuta) eskatu beharko diote irakasleari data aldatzeko. Bi ebaluazio proba batera egokitzea esaten dugunean, biok egun berean izatea eta bion artean lau ordutik beherako aldea egotea esan nahi dugu.

³ Titulazioak kreditutan banatzen dira; alegia, kreditutan neurtzen da ikasleen lana. Ikasgai bakoitzak kreditu balio bat du, eta ikasleek kreditu kopuru jakin bat lortu behar dute karrera bukatzeko. ECTS kreditu bakoitza ikaslearen 25 orduko lanaren baliokide da; aurrez aurreko jarduerak zein aurrez aurrekoak ez direnak izan daitezke.

Notak argitaratzea

Ikasgai bakoitzeko azken notak unibertsitateak prestatutako informatika baliabideetan argitaratzen dira nahitaez (GAUR tresna). Gainera, irakasleek hala nahi izanez gero, dagokion iragarki taulan ere argitaratuko dira; halakoetan, ikasleak NAN zenbakiaren bitartez identifikatuta agertuko dira, ez besterik.

UNIBERTSITATE ARAUDIA

Unibertsitateko eta Fakultateko webgunean aurkituko duzu kudeaketa akademikoari buruzko informazio zehatza. Araudi hauek kontsultatzea gomendatzen dizugu:

- Graduko eta lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako
- arautegia Graduko ikasketetan kredituak transferitu eta
- onartzeko arautegia Iraunkortasun arauak
- Gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia

IKASLEEN PARTE-HARTZEA eta ORDEZKARITZA

Gelako ordezkariak

Ikasturtearen hasieran, klase bakoitzak ordezkaria aukeratu behar izango du. Ordezkariaren eginkizuna zera da: gelako ordezkari izatea zenbait gaitan, eta lortzen duen informazioa taldeari helaraztea.

Ikasleen Kontseilua

Fakultateko Ikasleen Kontseilua da ikastegiko ikasleen ordezkaritza organo gorenaren. Ikastegiko Batzarrak eta Unibertsitate Klaustroak aukeratutako ikasle-ordezkariak osatzen dute Ikasleen Kontseilua. Organo guztiok urtero berritzen dira, urria eta azaroa bitarteko hauteskundearen ondoren. Kontseiluaren lokala ikastegiaren sotoan dago. Kontseilua garrantzitsua da, batez ere, ikasleengan interesa pizten duelako unibertsitateko egunerokoan parte hartzeko.

Kontseiluaren telefono zenbakia: 945 01 42 63.

Posta elektronikoa: glue.zik@ehu.eus eta glkontseilua@gmail.com

Ikastegiko Batzarra

Ikastegiko gobernu eta administrazio organoa da, kide anitzek osatua. Ikastegiko gainerako organo eta kideek nahitaez bete behar dituzte batzarraren erabakiak. Irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, eta ikasleen ordezkariak parte hartzen dute, ikastegiko araudian

zehaztutako moduari eta proportzioari jarraituz. Ikastegiko Batzarraren eginkizunetako batzuk dira, batetik, koordinatzailea aukeratzea eta, bestetik, ikastegiko politika akademiko orokorraren funtsezko lerroak diseinatzea eta onartzea. Ikastegiko gainerako organo eta kideek nahitaez bete behar dituzte batzarraren erabakiak.

Ikasleen beste ordezkaritza organo batzuk unibertsitate gobernuan

Ordezkaritza organo horietaz gainera, Fakultatean badira parte hartzeko beste egitura batzuk, bai campusean (Campuseko Batzarra), bai oro har unibertsitatean (Gobernu Kontseilua, Klaustroa eta Gizarte Kontseilua). Ikasleek ordezkaritza dute organo horietan guztietan, eta haien parte-hartzea garrantzitsua da.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Fakultateak mugikortasunerako eta ikasle-trukerako hainbat programatan parte hartzen du. Gizarte Langintza Graduan mugikortasuna hirugarren mailan egiten da, eta beste unibertsitate batean lauhileko bat edo bi egitean datza, baina beti UPV/EHUrekiko lotura mantenduz.

- Erasmus programak Europako hainbat herrialdetako unibertsitateetara joateko aukera ematen du.
- SICUE programak aukera ematen du estatuko hainbat unibertsitateetara joateko.
- UPV/EHU-AL, Latinoamerikako unibertsitateetara
- Beste Norakoak, beste kontinente batzuetako unibertsitateetara.

2. mailan, mugikortasun-programak koordinatzeaz arduratzen den pertsonak horren inguruan dauden aukeren berri ematen die ikasleei.

Programa horietan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da 2. mailan matrikulatuta egotea eta lehen maila (60 kreditu) gaindituta izatea Erasmus, Latinoamerika eta beste helmuga batzuen kasuan, eta 45 kreditu SICUEren kasuan. Hautaketa lehen mailako batez besteko notaren arabera egiten da.

PRESTAKUNTZA OSAGARRIAREN ESKAINTZA

Fakultateak prestakuntza osagarriko jarduerak antolatzen ditu ikasmaila guztietan: biltzarrak, jardunaldiak, ikastaroak...

Lehen eta bigarren lauhilekoetan, egun bateko edo biko biltzar bat eta bi jardunaldi antolatzen dira. Gainera, Fakultateak ikastaro osagarriak antolatzen ditu titulazio guztian zehar. Hala, tarteka, ikastaro horiei buruzko informazioa jasoko duzu, hala nola Lankidetza Ikastaroari edota Enplegua Bilatzeko Tailerrari buruz.

Azkenik, zenbait gizarte erakundek prestakuntza jarduerak antolatzen

dituzte Fakultatean, eta ikasleei haietan parte hartzeko aukera ematen zaie. Gaiari buruzko informazio eguneratua aurkituko duzu gure webgunean, "Jardunaldiak" atalean.

INFORMAZIOA eta KOMUNIKAZIOA

Fakultateko webgunea

Fakultateko webguneak Fakultatearekin lotutako zenbait gai biltzen ditu. Hona hemen gai horietako batzuk:

- *Antolakuntza Akademikoa* atalean, ordutegiei, azterketen datei, egutegi akademikoari, tutoretza orduei eta abarri buruzko informazioa aurkituko duzu. *Irakaskuntza Gida* atalean, ikasgaien programak ikusteko aukera izango duzu. *Iragarki Taula* atalean, ikasleentzako ohar interesgarriak argitaratzen dira, hala nola eskolak bertan behera geratzeari edo aldatzeari buruzkoak, jardueren antolaketari buruzkoak...
- *Idazkaritza* atalean izapideei buruzko hainbat informazio eta inprimaki aurkituko duzu (kredituen onarpena, bigarren matrikulaldia...)
- *Araudiak* atalean arlo akademikoko testu horiek kontsultatu ahal izango dituzu (iraute arauak, kredituen onarpena...).

Fakultateko webgunea informazio bide dinamiko bat da, aldizka eguneratzen dena. Maiztasunez erabiltzea gomendatzen dizugu, berritasun eta aldaketa guztiei buruzko informazio eguneratua izan dezazun uneoro.

<https://www.ehu.eus/es/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea>

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gizarte-langintzako-gradua>

Posta elektronikoa

Zure matrikula egitearekin batera, posta elektronikoko helbide bat jasoko duzu, gai akademikoetan erabil dezazun. Unibertsitateak pasahitz bat emango dizu esteka honetan sar dezazun: <http://www.ehu.eus/correow>. Ikastegian zauden bitartean izango duzu helbide hori erabilgarri. Irakasleek zein UPV/EHUko beste zerbitzu batzuek (liburutegia, irakasleak...) erabiltzen dute komunikazio bide hori, eta garrantzitsua da maiz begiratzea.

Badago, bestalde, unibertsitateko posta elektronikoan jasotako mezuak beste helbide elektroniko batera bideratzeko aukera. Informazio gehiago aurkituko duzu goian adierazitako webgunean, ohiko galderen atalean.

Iragarki taulak

Fakultateak baditu zenbait iragarki taula.

Behe solairuko iragarki taula ofizialean (erlojuaren azpiko erakusleihoan) antolakuntza akademikoari buruzko informazioa (ordutegia, azterketak...) edota oharrak aurkituko dituzu, besteak beste.

Lehenengo solairuko iragarki taula ofizialean ikastegiko batzarraren eta batzordeen berriak argitaratzen dira, bai eta, oro har, UPV/EHUrenak ere.

Idazkaritza ondoko taula-erakusleihoan, berriz, izapiderei buruzko informazioa aurkituko duzu (bekak, kredituen onarpena...).

Irakasleen bulegoen ondoko iragarki tauletan, ikasleentzako informazioa argitaratzen da (tutoretzak, notak, oharrak...).

Ikasgelen ondoko korridoreetan, informazio orokorragoa eskaintzen duten taulak daude, eta hall-ean ere bada ikasleentzako iragarki taula bat.

Informazio pantaila

Ikastegiko hall-ean informazio pantaila bat dago.

Irakokizunen postontzia

Ikastegiaren beheko solairuan, iragarki taula ofizialaren ondoan, irakokizunen postontzia aurkituko duzu, zure irakokizunak eta gomendioak egin ditzazun.

Webguneko postontzia

Fakultateko webgunean ere bada postontzi bat, zure irakokizunak bidal ditzazun.

INFORMAZIO INTERESGARRIA

IKASTEGIKO DEKANOTZA TALDEA

Ikastegiko zuzendaritza taldea honako kide hauek osatzen dute:

• Ataleko koordintzailea eta Lehenengo dekanordea	• Ikastegiko jarduerak zuzentzen, koordinatzen eta gainbegiratzen ditu. • Titulazioa ezartzeko ardura betetzen du. • Ezgaitasunen bat duten ikasleen arreta.
• Idazkari akademikoa	• Ikasleen hauteskunde prozesuak koordinatzen ditu, eta laguntza ematen die ikasleen ordezkariari. • Antolakuntza akademikoarekin lotutako gaien arduraduna (azterketak, ordutegiak...)
• Praktika kurrikularren eta Garapenerako lankidetzako dekanordea	• Kanpoko praktikak: Practicum planifikatzen eta antolatzen ditu. • Garapenerako lankidetzako praktiken arduraduna da.
• Antolakuntza akademikoko dekanordea	• Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren arduraduna. • Ateak Zabalik Jardunaldiaren Koordinatzailea.

HELBIDETEGIA

UPV/EHUko langile guztien telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea webgunean daude ikusgai, "Langileak" atalean, honako esteka honetan: <https://www.ehu.eus/bilatu/>.

Dena den, hona hemen Fakultateko telefono zenbaki eta helbide garrantzitsu batzuk:

	Telefonoa	Posta elektronikoa
Atezaindegia	945 01 33 17	-
Ikasleen idazkaritza	945013314 /3316/3813	sec-centro.euts@ehu.eus
Administratiboa	945 01 33 11	glue.zuzendaritza@ehu.es
Koordinatzailea	945 01 33 15	glue.administratzailea@ehu.eus
Zentruko Teknikoa	945 01 42 70	glue.teknikaria@ehu.eus
Ikasleen Kontseilua	945 01 42 63	glue.zik@ehu.eus glkontseilua@gmail.com

[illegible]